

# Galeuzca: Nazioen batasuna Estatu uniformearen aurrean

Xosé Estévez *Galeuzca: La rebelión de la periferia (1923-1998)* ezohikoa da: historialaria posizionatu egiten da eta hausnarketa politikoak egiten ditu Galeuzcaren ibilbideaz. Liburuak bide ematen du mugimendu historikoaren zereginaz eta nazioen arteko harremanez hitz egiteko.

## URKO APAOLAZA

“IDAZLE UMIL HONEK nabarmen ikusi ahal izan du euskaldunen eta galiziarren arteko harreman onak, batez ere abertzaleen artekoak, Galeuzcak utzitako arrasto historikoren ondorio direla parte handi batean; sinbolo, mugari eta mito trinazionalera goretsia”. Xosé Estévez Quirogan (Lugo, Galizia) jaio zen eta hori esaten duenean badaki zer dioen. Deustuko unibertsitateko historia irakasleak dezente ikertu du Espainiako Estatu barruan dauden nazioen arteko erlazioa, eta Galeuzcaren bultzatzaileetako bat da gainera. Orain, perspektiba historikoa galdu gabe, hausnarketatik eta salaketatik gehiago duen liburu labur bezain sakona kale-ratu du: *Galeuzca: La rebelión de la periferia (1923-1998)*.

Estevezek ezinbesteko jotzen du periferia horretako abertzaleen batasuna Espainiako Estatuaren “ofentsibaren aurrean”, eta kontra egiten die Galeuzca mugimendu ezdeusa izan dela diotenei. “Akordio *galeuzcatarrak*, estatu-nazioen hitzarmen internazionalak bezain operatiboak izan dira, azken hauek garaipen arkuetatik pasa izan baitituzte bere interesa zalantzan jarri orduko”, dio historialariak.

### Carod-Rovira: “Galeuzca naturala”

Josep-Lluís Carod-Rovira Esquerra Republicanako presidentek egin dio hitzaurrea liburuari. Paradoxikoki ERCK ez du gaur egun mugimendu horretan parte hartzen, baina historikoki Galeuzcaren sustatzaile nagusietako bat izan da. Carod-Roviraren esanetan periferiaren matxinada posi-

ble izango da soilik nazio katalana, euskalduna eta galiziarra hornitzen badira plataforma zabal, anitz eta adierazgarri batez. “Konplizitate espainiarra” ez litzatekeela gaizki etorriko dio, baina alde horretatik “arrakastarako aukerak” ezkertasun handiz ikusten dituela aitortu du. Dena den, politikariak ez du etsitzen: “Bitartean, Galeuzca natural moduko horrek existitzen jarraituko du, espontaneo, sintzeroa, izaera indibidualakoa, ofizialki antolatuta gabea”.

### Galeuzca-tik Galeuscat-era

Akronimoa 1933an agertu zen lehen aldiz *Euzkadi* egunkarian EAJko

Telesforo Monzon eta Teodoro Herandorenak sustatuta. Galeuzca osatzen zuten hiru nazioen (Galizia-Euskadi-Catalunya) arteko harremanak XIX. mendetik datoz, baina aurrekaririk nagusiena 1923ko Aliantza Hirukoitza izan zen. Ordurako, formazio abertzale tradizionalen alboan bazeuden hainbat alderdi erradikalago. Accio Catalá-ren deiarri erantzunez hitzarmena sinatu zuten Bartzelonan Diadaren egunean, irailaren 11n. Istiluak izan ziren eta badirudi abertzale horien jarrera gogorak Primo de Riveraren kolpea akuilatu zuela. Erbestean Francesc Macia politikari mitikoak mugitu zituen harremanak,



Gernikaren bonbardaketa gogoratzeko 1945ean Galeuzcak antolatutako ekitaldia Montevideoko ‘Gernika plazan’.

eta urte batzuen ondoren, II. Errepublikak atek ireki zizkion hiru nazioen arteko Galeuzcari, 1933ko Compostelako paktuarekin. Estatu federalaren eta estatutu propioen aldarrikapena izan ziren nagusi urte horietan.

Compostelako paktua sinatu ostean, zenbait politikarik bidaia luzea egin zuten elkarrekin Euskal Herrian eta Katalunian barrena. Xosé Estévezek bidaia hartan parte hartu zuen Alvaro das Casas galiziarraren egunerokoa itzuli du, eta bertan, ederki ikus daiteke urte horietako giroa: EAJren batzokietako antolaketa “perfektua”; Donostiako bainuzale *maketoak*; euskararen galera –“minoria oso txiki batek soilik hitz egiten du hemen”–; Lizarrako erreketek airea eta Fortunato Agirre alkate separatistaren hitzaldia... Honela iragartzen du, azkenean, das Casasek: “Herria, irakiten, behin betiko borrokara jaulkitzeko momentuaren zain dago; garaipena segurua da”. Dokumentu baliotsua da, baina ez da euskarara itzuli, gaztelaniara baizik. Hain zuzen, Koldo Izagirrek liburuaren aurkezpen egunean salatu zuen hizkuntzari garrantzi gutxi eman izan zaiola Galeuzcako itunetan.

Gerra zibilarren ostean, Galeuzcak erbesteak markaturik egingo ditu pausoak. Londres, Buenos Aires, Caracas, Paris... horietan guztietan izan ziren kontaktuak eta hitzarmenak izen eta talde ugariaren eskutik (Castelao, Agirre, Batista i Roca...). Baina Galeuzca, paktu sendorik gabe iritsi zen Espainiako trantsizio politikora, eta testuinguru garrantzitsu horretan, akronimoa baliatzeko saiakerek porrot egin zuten. Beraz, 1998ra arte ez da izango hiru nazioe-

## Historialarien eta idazleen Galeuscak

Galeusca hitza ez da soilik ikur politiko gisa erabili izan, zentzu zabalagoan ere hartu izan da, horren adibide da duela urtebete inguru Galizia, Euskal Herria eta Herrialde Katalanetako historialari ugari Bartzelonan sinatu zuten manifestua, historiaren “Estatu ikuspegiari” aurre egiteko, besteak beste. Horretarako bilera eta kongresu bateratuak egingo dituzte Galeuscaren izenpean.

### Idazleak Arantzazun, asteburu honetan

Idazleen Galeuscak ibilbide luzeagoa du. 1984an egin zuten lehen idazleen bilera Kataluniako Poblet herrian; iaz federazio gisa funtzionatzea erabaki zuten hiru herrialdeetako idazleen elkarteek. Aurtengo batzarra Arantzazun antolatuta du EIEk *Literatura txikiak, erronka handiak* izenarekin eta lau ataletan banatuta dituzte jardunaldiak. Antolatzaileek bloga sortu dute eztabaidarako edukiak eta iritziak trukatzeko: [www.blogari.net/galeusca2009](http://www.blogari.net/galeusca2009).

tako alderdien arteko beste akordioarik. Urte horretan CIU, BNG eta EAJk Bartzelonako paktua sinatu zuten, “Galeusca” berriari sorrera emanez, eta 2006an “Galeuscat” izatera pasatu zen mugimendua.



*Galeuzca: la rebelión de la periferia (1923-1998)*. Xosé Estévez. Entinema argitaletxea. 165 orr. 17 euro.

### Marka elektorala baino gehiago

*Galeuzca: la rebelión de la periferia*-tik atera daitekeen konklusioetako bat da mugimendua egoera politiko larrietan suspertu izan dela. Gainera, egilearen ustez entente operatibo bat baino gehiago da, hori erakusten du “zentralismo jakobinoaren erreakzioak”.

Dena den, garaian-garaiko akordioek izaera ezberdina izan zuten. 1923koak, independentzia lortzeko, behar izanez gero borroka armatua defendatzen zuten, “odola sakrifizioan nahastu” zioen; 2006koak, aldiz, estatu plurinazionalaren alde egiten du. Jakina denez, 2009ko Europako hauteskundeetan BNGk Galeuscat koalizioa utzi zuen interes elektoralengatik, agerian geratuz gaur egungo ententeari sendotasuna falta zaiola. Estevezen iritziz, gauza zaila den arren, beste sektore batzuk ere parte hartu beharko lukete Galeuscat-en (ERC, Aralar, EA, NaBai, ezker abertzalea...), helburu honekin: “Handitzen ari den uniformizatzearen aurka tresna eraginkorra izatea”. ■



# Atxaspi Hotela

Bittiria 24  
Lesaka (Nafarroa)  
T 948 637 536

[hotela@atxaspi.com](mailto:hotela@atxaspi.com)  
[www.atxaspi.com](http://www.atxaspi.com)

ametsetan bezala...